

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa Antzinako Musika Jaialdien Europako Sarearen (REMA) buru izango da

Dori Lopez Jurio, Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, lehendakari izendatu dute

Martes, 26 de abril de 2011

[REMAk, Antzinako Musika Jaialdien Europako Sareak,](#)

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuko Kultur Ekintzako Zerbitzuan zuzendari Dori Lopez Jurio erakundeko lehendakari izendatu du duela gutxi Parisen egindako batzarrean. Gobernuak Departamentu horren bidez antolatzen duen Lizarrako Antzinako Musikaren Astea REMAko kidea da 2006. urtetik.

REMA Ambronayn (Frantzia), 2000. urtean sortu zen sarea da, eta gaur egun, Europako 20 herrialdeetako 60 kide baino gehiago ditu. Sarearen egoitza ofiziala Parisen dago eta antzinako musika sarea sustatzea, Europan zabaltzen laguntzea eta Antzinako Musika programak antolatzen dituzten erakundeei laguntzea da haren helburua.

Sareak ideia keta esperientziak trukatzeko aukera ematen die kideei, eta proiektuak eztabaidatzeko foru garrantzitsua da. EFArek (Europako Jaialdien Elkarteak) kidea ere bada REMA.

Elkarteak hiru bilera egiten ditu urtero, antzinako musikarekin zuzenean zerikusia duten gaiak eztabaidatzeko. Halaber, bi urtean behin, Europako showcase bat egiten du, antzinako musikaren arloan aritzen diren interprete gazteen talde berriak ezagutzera emateko.

REMAk bilera eta ekitaldiak ere antolatzeko ditu Europako beste kultura plataforma batzuekin. Horrela, kideek beste sare batzuetan parte har dezakete eta beste kide batzuekin elkar daitezke. Azkenik, Europako antzinako musika jaialdietara joaten den publikoaren bilakaerari buruzko azterketa bat ere argitaratzen du.

REMAk Frantziako Kultura Ministerioaren eta Europar

